

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

826

EBAZPENA, 2022ko otsailaren 9koa, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko martxoaren 24ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda. Agindu horren bitartez, 2021eko ekitaldirako nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileentzako ostatu izango diren higiezinak sortzeko, egokitzeko edo ekipatzeko martxoaren 24ko 45/2020 Dekretuan aurreikusitako laguntzen deialdia egiten da.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko martxoaren 24ko Aginduaren bidez, 2021eko ekitaldirako nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileentzako ostatu izango diren higiezinak sortzeko, egokitzeko edo ekipatzeko martxoaren 24ko 45/2020 Dekretuan aurreikusitako laguntzen deialdia egin zen.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariaren ebazpenaren bidez, Nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileentzako ostatu izango diren higiezinak sortzeko, egokitzeko edo ekipatzeko laguntzei buruzko martxoaren 24ko 45/2020 Dekretuaren 14. artikuluan ezarritakoa betez, eskatutako laguntzak esleitu dira.

Hala, ebazpenak onuradunei jakinarazi ondoren, eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49. artikulua bigarren paragrafoko 2. apartatuan xedatutakoarekin bat etorrita (1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena), honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea, denek jakin dezaten, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko martxoaren 24ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda (ebazpen honi erantsi zaio). Agindu horren bidez, 2021eko ekitaldirako nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileentzako ostatu izango diren higiezinak sortzeko, egokitzeko edo ekipatzeko martxoaren 24ko 45/2020 Dekretuan aurreikusitako laguntzen deialdia egiten da.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa jar diezaiokete Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari. Horretarako, hilabeteko epea izango dute, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 9a.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaria,
JONE MIREN FERNÁNDEZ LANDA.

2022ko otsailaren 17a, osteguna

ERANSKINA

Espedientea erref.	Onuradunak	Proiektua	Dirulaguntza (euro)
00001-ATT2021	Aguraingo Udala	Sasoikako langileentzako ostatuetako ekipamendua	6.357,37
00004-ATT2021	Lezako Udala	Sasoikako langileentzako aterpetxeen ekipamendurako inbertsioa	1.450,25
00005-ATT2021	García Zabala SC	Sasoikako langileentzako etxebizitza eraikitze eta eraisteko proiektua	20.000,00